

DONOSTIAKO EUSKALTZALEON AKTIBAZIOTIK MUGIMENDURA BIDEAN



DET

D O N O S T I A K O
E U S K A L T Z A L E O N
T O P A K E T A K

2019ko udazkena

bagera

Donostiako
Euskaltzaleen Elkartea

AURKIBIDEA

Sarrera.....	3.orr
Antolakuntza.....	4.orr
Parte hartze eredua.....	5.orr
Harreman sareak.....	6.orr
Jendarteko sektoreak.....	7.orr
Eragiteko gaitasuna.....	8.orr
Diskurtsoa.....	9.orr
Hiri eredua.....	10.orr
Erakunde publikoekiko harremana.....	11.orr

SARRERA

Donostia hiri euskalduntzat hartzen bada ere, euskararen erabileraren [datuek](#) argi adierazi ziguten 2016an egindako neurketek erabilera beheranzko joeran doala. Izaera desberdina duten hamarnaka eragile eta norbanako dabilta egoera hori aldatu nahian: eragile sozialak, elkarteak, ikastetxeak, euskaltegiak, auzo batzordeak eta abar. Donostiar askoren kezka da hiria jasaten ari den aldaketen baitan euskararen trataera zein den eta etorkizunean zein izango den. 2018ko Euskaraldiak astindu zuen hiria eta norbanakoengan jarri zuen fokoa. Norberak bere hizkuntza ohituretan alda dezakeena frogatzeko baliagarria izan zen. Donostian euskaraz bizitzeko zailtasunak azalean bizitzeko baliagarri izan zen.

Azken hamar urteetan euskararen aldeko hiriko mugimendua asko aldatu da eta hori jasotzeko asmoz prozesu parte hartzaile bat jarri genuen habian eta, horretarako, kezka partekatzen eta egoera aldatzeko gogoz daudenekin lanean egon gara udazken honetan, Donostiako auzoetako Euskara batzordeetako kide zein euskararen alde lan egiten duten eragile eta norbanakoekin.

Horretarako prozesu parte hartzaile bat abiatu genuen 2019ko udaberrian, dagoeneko existitzen den sarea kontziente eta ikusgarri bihurtu nahian eta sare hori zabaltzeko ariketa eginez. Ahots desberdinek garatutako prozesu honetan zehar hainbat saio burutu ditugu: auzoetako Euskara Batzordeekin auzoz auzoko errealitatea eta norbanakoekin Donostiako hiri mailakoa aztertzeko. Saio horietan AMIA (aukerak, mehatxuak, indarguneak eta ahulguneak) erramintaren bitartez eta azaroaren 16an egindako DET topaketetan jasotako ekarpenek osatu dute txosten partekatu hau. Diagnosi ariketak egitean, sarritan gertatu ohi den bezala, ondo doana edo ondo egiten denari tarte txikia eskaini ohi zaio eta prozesuan parte hartu duten pertsonen hobetzeko beharra duten puntuak azpimarratu dituzte. Horregatik, hurrengo atalean ikus daitezkeen gehienak gainditu beharreko oztopoak eta horiei lotutako aurrera begirako erronkak dira.

Ondoren aurkezten diren arloetan banatu da diagnosis: antolakuntza, parte hartze eredua, harreman sareak, jendarteko sektoreak, eragiteko gaitasuna, diskurtsoa, hiri eredua eta erakunde publikoekiko harremana.

ANTOLAKUNTZA

Donostiako 10 auzotan Euskara Batzordeak daude gaur egun: Aiete, Altza, Amara Berri, Añorga, Egia, Intxaurren, Loiolako Erriberak, Martutene, Morlans eta Parte Zaharra. Euskara batzordeen ibilbide, historia eta egitekoak oso ezberdinak dira auzoz auzo. Batzuek elkartzeko espazio fisiko propioa dute, adibidez, eta horrek haien artean biltzean eta ekimenak antolatzeko erraztasuna edukitzean eragiten du. Beste auzo batzuetan, ordea, erreferente bezala funtzionatu zezakeen espazio eza dago eta horren eraginez umeak eta gazteak ere nekez hurbiltzen zaizkie. Batzuek haien auzotarrak antolatzeko eta saretzeko gaitasun handia dute auzoan euskararen edo bestelako borroken alde lan egin duen belaunaldiak militantzia ibilbidea jarraitu dutelako; baina beste batzuek haien auzoa "lotarako auzotzat" dute eta kezkatu bizi dute jendearen antolatzeko interes eza, baina baita aukera berritzaile dute antolatu gabeko euskaltzale kontzientziadun komunitate (batez ere gazte) hori.

Orokorrean joan-etorrian dauden taldeak dira euskara batzordeak, txikle moduan handitu eta txikitu egiten direnak momentuaren arabera eta sare handia mugitu dezaketenak, baina talde motorrak orokorrean txikiak dira edo eragileen sare batek osatzen du. Talde hauek askotan egutegiak markatzen duen erritmo eta ekimenei erantzutera mugatzen dira eta plan orokor eta amankomun bat osatzaren garrantzia nabarmendu da. Hiri mailan koordinazio falta dago eta zailtasun honi aurre egiteko elkarren arteko esperientzia trukaketa bultzatzearen garrantzia ere goraiatu da. Donostian aldaketa garrantzitsu bat ere eman da: Euskal Herrian Euskaraz antolatuta ez egoteak aldarrikapen eta protestan hutsune nabarmena utzi du. Honek herritar eta auzotarrengana iristeko bide zuzenak eraikitzekeo beharra agerian utzi du. Euskararen aldeko lanean daudenak atomizazio efektuaz dihardute eta honi aurre egiteko eta muin eraginkor bat sortzeko bide bat aldarrikapenari denbora muga bat jartzea eta ekintzari zuzentzea izan daitezkeela uste dute.

PARTE HARTZE EREDUA

Aktibazio puntaletarako, epe-muga bat duten ekimenetarako, gaitasun handia dago parte-hartzean, baina konpromiso maila malgua edo arina da azkenean euskararen aldeko mugimenduan aktibatzen denak eskaintzen duena. Euskaltzaleak herri mugimendu ezberdinetan daude eta egun gizartearentzat lehentasunezko diren problematiken baitan antolatuta daudenak dira hauek (pentsionisten mugimendua, mugimendu feminista edota ekologista, esaterako), baina babes sozialaren falta somatzen dutela nabarmen azaldu da.

Borroken lehentasunen indibidualizazioen garaia da eta norbere interesen edota errealitatearen araberakoa; kolektiboan pentsatzea eta ekitea gero eta zailagoa da eta horrek eragin handia suposatzen du datozen belaunaldiengan. Euskararen aldeko borroka eta euskara batzordeetan ez da apenas gazterik ibiltzen eta horrek erreleboaren bermea zalantzan jartzen du. Euskararen aldeko lana hizkuntza erabiltzeko sustapen kanpainen zentratu da azken urteotan. Erakunde publikoen jardunari jarraipena eta eskaerak egiteko dinamikak lausotu egin dira, hizkuntza eskubideen urraketak salatzea maila pribatura murriztu da eta Donostia zein Euskal Herri mailako eztabaida publikoetan euskararen gaia ez da ia agertzen.

Euskara batzordeek orokorrean auzoetako beste eragileekin harreman onak dituzte eta gauzak aldatzeko gogoia duen jendea da. Momentu puntaletan bolondres ugari aurkitzen dute inguruan laguntzeko prest, baina jaien eta umeentzako ekintzen inguruan biltzen eta mugitzen dira, gai horiez gain beste eremu batzuetara iristea edo beste eremu batzuetan eragitearen falta somatzen dutelarik.

Auzo batzuetan batzordeak eragileen sareek osatzeak espazio eta esparru ezberdinetara heltzeko bermearen onura du batetik, eta auzoarena izan litekeen eta denon artean egin ahalko luketen proiektu amankomunik sortzeko gaitasun eza dute bestetik. Azken honetan sakontzeko beharra somatzen da, mugimendua ahaldundu eta eragiteko gaitasuna handitzeko bide gisa. Beste batzuetan batzordea auzotarrek eta euskaltzaletasunean jantzitako edo horren inguruan lanean dabilen jendeak osatzen du, baita militantzian ibilbidea duena eta bi alorrak uztartu nahi dituenak.

Komunitate birtualean murgiltzeko beharra dago, gaur egun euskararen presentzia bertan ere indartu behar da eta horretarako eredu berriak aztertu beharko dira. Eredu horiek egokitzeko eta zubiak nola eraiki birpentsatzeko beharra azaldu da.

HARREMAN SAREAK

Batzordeak norbanako zein eragileen sareak izateak auzoetan harreman sareak garatzea dakar ezinbestean eta, ondorioz, eremu anitzetan eta askotan ekarpena egitea euskalgintzari. Harreman naturalak dituela esan genezake, beraz, herri mugimendu ezberdinekin eta hirian azken hauen sare aberatsa dago; baina euskararen sustapenean jarduten diren eragile eta norbanakoen arteko ezezagutzarekin hautsi eta aliantza estrategikoak irekitzeko aukera berriak ikusten dira. Beste sektore batzuekin aliantza hauexek garatzeko, ordea, integrazioarako baliabide falta dagoela nabarmendu da.

Barne mailari dagokionez harreman sare horiek zertarako eraikitzen eta mantentzen diren galdetzea dagokio mugimenduari, hau da, funtzioak zehaztearen beharra somatzen da.

Harreman naturala ere norbanakoen artean, koadriletan bizpahiru eremu ezberdinetan militatzen duten pertsonak egon daitezkeelako eta azkenean taldekide guztiek dutelako denek egiten ari direnaren berri, eragileen arteko elkarlana erraztuz.

Hori bai, auzoaren izaeraren arabera baliteke bestelako mugimendurik/antolakunderik ez egotea (gazteak falta diren auzoetan edota "lotarako auzo" diren horietan). Oso ezberdinak dira sareak segun eta auzoaren izaera eta tamaina nolakoa den, azalera eta biztanlerian. Auzo txikietan denak ezagunak dira eta horrek sareak erraztu baina oso pertsonalak bihurtzearen arriskua du. Oro har, auzoen arteko koordinazio falta somatzen da eta horri buelta eman eta indartzeko beharra dagoela azaldu da.

Auzoetan elkarteen arteko harremanak anitzak dira, auzo elkarte eta gastronomikoekin orokorrean ez da oso gertukoa izan, lan gehiago dago hor egiteko, baina kirol elkarteetan interesa izaten dute Euskara batzordetik antolatzen diren ekintzen berri izan eta parte hartzeko. Bestelako sektore batzuekin, hala nola, hezkuntza, euskaltegi eta bestelako eragile batzuekin saretu eta lan egiteko beharra ere ikusi da. 2018ko Euskaraldiarekin sortutako jende eta eragile sareari ere eutsi diote hainbatek sare hori handituz joateko eta lotura horiek ez galtzeko. Zenbait auzoetan aisialdi taldearekin lotura eta lan egitea ezinbestekotzat jo dute ere, haur eta gazteengana heltzeko modu egokiena delakoan.

JENDARTEKO SEKTOREAK

Gazteak aktibo dauden gunek eta gazteenak propio diren eragileak (jai batzordeak, piratetako kofradiak, aisialdi taldeak, gazte problematika lantzen duten eragileak...) euskaltzaleak dira, euskaraz kontzienteki jarduten diren sektore indartsu bat da, eta aktibazio puntualetarako prest egoten dira. Bestalde, gazte gutxi daude modu aktiboan eta egonkorrean lanean euskararen sustapen edota aldeko mugimenduetan, nahiz eta auzo batzuetan gazte batzuk politizatuta dauden eta antolatzeke joera duten, haien bizi baldintzek ez dute horren alde egiten.

Hezkuntzaren sektorean euskarazko eredu gailentzeaz gain, hezkuntza komunitatea ere euskalduna da. Guraso belaunaldi berriek haien seme-alaben euskalduntze integralaren inguruan ardura dute eta fokoa aktibo asko daude (eskoletako guraso elkarten euskara batzordeetan edota auzoetako euskara batzordeetan perspektiba horretan lanean). Euskaraz bizitzearen beharra identifikatu eta kontzientzia hartzeko diskurtso eta pautak berriak behar direla azaldu da, honen garrantziari buruz hitz egitean lehengo arrazoiketetan mantentzen baikara eta eraginkortasunean gakoa izan daiteke.

Gainera, auzo batzuetan guraso belaunaldi berrien presentzia handia da eta haien arteko sareak egiten du auzoaren izaera bera; hauetako asko euskaldunak dira eta egunerokotasunean eskolatik kanpo laster gazte izango diren umei gune euskaldunak eskaintzen dizkietenak dira, gune informalak hain zuzen ere. Hala ere egunerokotasunean erresistentzia egon badago plazetan, zonalde batzuetan jatorrizko hizkuntza gaztelera duten askok ez dute euskaraz bizitzeko inongo interesik eta paso egiten dute antolatzen diren gauzetan, umeak ez dituzte eskola euskaldunetara eramaten, etab. Gaztelerari eusten dioten baloreak irmoki defendatzen dituen erresistentzia handia dago eta hauek auzoko beste arlo batzuetan parte hartzen dutenean goraiatzen eta partekatzen dute haien ikuspuntua, eta zenbait auzotan talkak sortu ditu honek.

Lan mundua atzean geratu da, normalkuntza eta erabileraren bidean. Zerbitzuen sektoreak hirian geroz eta garrantzi handiagoa du eta nagusiki erdalduna da, euskara hutsala bihurtzen ari da (hizkuntza paisaia adibidez).

Mugimendu feministaren moldeak eredu, euskararen aldeko mugimenduaren helburua euskaldunen aktibaziotik abiatuta, berauek ahalduntzeko funtzio soziala izan behar duela azaldu da, erdal munduari kasu gutxiago eginez, fokoa barne giharra indartzean zentratuz.

ERAGITEKO GAITASUNA

Euskara sustatzeko ekimenen irismena txikia da eta koordinazio ezagatik eragin gaitasuna biderkatzeko zailtasuna azaldu da. Gatazkarik ez dagoen momentutik eta normalkuntzaren sententzia egonkortu denetik mugimenduak ikusgarritasun falta dauka, euskara ez dago agenda politiko eta sozialean. Inertziak egonkortuta daude (betikotuta dauden ohiturak), herritarren eguneroko bizitzan errotuta.

Auzo batzuetan egindako proiektu eta ekimenekin, eremu informaletara (plazara) salto egitean asmatu dute. Euskara Batzorde batzuk handiak dira eta haien eragina gero eta handiagoa da, erreferentzialtasuna dute, gero eta ezagunagoak dira. 2018ko Euskaraldiak bultzada handia eman du auzo gehienetan, arrakastatsua izan da auzoetako sare zein eragin gaitasuna handitzeko. Euskararen aldeko mugimenduak bere buruari eragiteko duen ahalmen eta gaitasuna aitortu behar dio.

Erabilerarako aukera gutxi dago orokorrean, zenbait eremutan ez dago euskaraz hitz egiteko aukerarik eta auzo batzuetan ez dago lehen hitza euskaraz egiten duen haurrik, euskaraz bizi den erreferentziazko talde ikusgarririk ez dagoelako. Zenbait auzotan euskara entzutea edota ikustea zaila da eta horrek ume eta gazte batzuek eskolaz kanpo euskara gutxiago edo ez erabiltzea eragiten du. Auzo batzuen egiturak ez du honen alde egiten, plaza elkargune bakarra denean edota plazarik ez dute batzuk, elkargunerik ez duen auzoa bilakatu.

Eremu batzuetan eragiteko gaitasuna txikia da oraindik eta eremu sinbolikora mugatu gara, erabilerak balio praktiko txikia du. Euskara batzordeek ez dute ikastetxeetan ondo eragiteko gaitasunik, ez dira heltzen. Berdina merkataritzaren munduan, oso arlo zaila da. Gero eta gutxiago dauden auzoetako denda txiki batzuk euskaldunak dira baina bestela merkatalgune handietako iruditegi gehiena gaztelaraz dago. Kate handietan eragitea oso zaila da, zuzendaritzatik jasotzen dituztelako aginduak (batzuetan Madriletik). Langileak eta jabeak gutxi dira bertakoak eta, hala bada, auzoetan lan egin baina ez dira bertan bizi ezta antolatzen ere.

Eragin handia duten guneetan eragiteko beharra ikusi da, unibertsitatea kasu, non euskaldun eta euskaltzale asko dauden eta prestigioa lantzen jarraitzen den. Indarrak bildu une eta erronka zehatzetan eta zeharkakotasuna landu haiekin, banaka bizi diren tentsio eta deserosotasunak kolektibizatu eta egituratzerako bidean. Euskararen aldeko lana eta

eskaera ez dute euskararen aldeko eragile izendatzen direnek soilik egin behar, borroka komun bat dela transmititu behar da.

Donostian euskararen normalkuntza osoa erdiestea helburu, 2002 urtean sortu zen Donostiako Euskararen Gizarte Mugimenduaren bilgunea, Euskarak Batzen izena jarri ziotena. Normalkuntzaren alde lanean ari zirenen arteko koordinazioa bideratu nahi zen, batez ere informazioa trukatzeko modu bat bilatzen zen. Helburu hori lortzeko eta eragin maila handiagoa lortzeko ahalik eta eragile eta norbanako gehienen parte hartzea bilatzen zen. Azkenik, Batzenek jendartean euskararen aldeko giro soziala pizteko tresna izan nahi zuen. Baina Batzen ez da ezaguna, bere funtzioak, lanak eta helburuen sozializazio ezak haren parte hartzea beheranzko joeran joatea eragin du, azken urteetan ia desagertzeraino.

Egun kulturartekotasuna lantzeko aukera dago auzoetan zein hirian dagoen aniztasunagatik beragatik eta dauden beste eragileen lanari esker. Aniztasunaren kudeaketan lanean ari diren eragile ezberdinekin batera "harrera hizkuntza"ren diskurtsotik lan egitea ahalbidetzen du eta hor euskararen aldeko lanak aukera ederra du.

DISKURTSOA

Euskaldunen hizkuntza eskubideen aldarrikapena eta eskubide urraketen salaketa egingo duen diskurtsoaren falta somatzen da, konplexurik gabea eta esparru guztietara heldu daitekeena. Euskararen alde egotea da Donostiako iritzi publikoan "politikoki zuzena" eta hau deseraikitze beharra dago. Hiriko herritar eta mota guztietako taldeen gehiengo handia euskararen alde kokatzen da.

Ustezko kontsentsu horrek, ordea, euskarak gizartean izan behar duen tokia eta hizkuntza politikaren inguruko ikuspegi oso desberdinen arteko talka estaltzen du. Hizkuntza-politika eta hizkuntzen kudeaketaren gaineko eztabaida soziala ez da ematen agerian, pribatutasunaren eremura mugatzen da, gaur egun.

Mugimenduaren oinarri sendoa izango den diskurtso erradikala eta ausarta eraikitze beharra dago, aldarrikapena sustatuko duena baina erakargarria izango dena, umoretik eta freskotasunarekin eraikitakoa.

HIRI EREDUA

Donostiako hiriaren eraldaketa handia eta etengabea da; euskararen aldeko mugimenduan kezka sortzen du euskararengan izan dezakeen eraginak. Batzuentzat Donostiako politika publikoak kanpo-interesei eta turismoari zuzenduak daude eta bertan bizi diren herritarrak ez dira lehentasuna, hortaz, bertan euskaraz bizi nahi duten herritarrak are gutxiago.

Turismoaren ondorioek bete betean jotzen dute bertako komunitatean, auzo batzuetan bertako merkataritza eta ostalaritza gainbehera doa eta euskaldunak ziren komertzioak desagertuz doaz, eta bertako biztanleak ere gero eta gutxiago dira, bertakoek ez dutelako haien auzoetan bizitza egiteko baldintzarik. Hiria jasaten ari den eraldaketa hain da handia eta zabala, etxebizitza eta lana bezalako gaien inguruko eztabaidak euskararen egoeraren inguruan eman zitekeena estaltzen duela.

Auzoen izaerak, bestalde, modu ezberdinetan eragiten du. Batzuetan elkargunerako espazio fisikorik ez egoteak (plazak, esaterako) harreman sareen eraketa murriztu egiten dute eta, ondorioz, antolatzeak aukerak ere. Tamainak ere badu eragin handia, zabalera handiko auzoetan merkatalgune handiak daude eta asko "lotarako auzoak" dira, kanpotik lanera datorren jendeak osatzen du eguneroko bizitza eta eguna amaitzean auzoa hutsa gelditzen da, mugimendu handirik gabe. Auzo horietan etxe berrietako biztanleriaren eta, hortaz, hezkuntza komunitatean murgiltzen den sektorean potentzial handia dago ere, eta aldaketa hauek pairatzen ari diren guneetan hizkuntza eraginaren diagnostikoa egitearen beharra somatu da.

Auzo txikiagoetan sareak egitea errazagoa litzatekeen arren, gazteria falta da eta egitura arkitektonikoa bera mehatxutzat bizi dute, horren arabera auzokideen arteko harremanak oso mugatuak direlako ere. Gainera, turismoak jota ez dauden auzoek ere sustraitzeko aukera gutxi ematen dute, egoera oso prekariora bihurtzen da etxeak etengabeko errebisioan daudelako edota erosteko edo auzoetan gelditzeko aukerak murrizten dizkietelako. Honek sareak sortzen diren guneak ghattizatzen darama Donostiako biztanleria, arnaguneak murrizten doaz eta herritarrak ez dira hauek babesteko gai. Euskaldunok puntu erreferentzialetan elkartzeko joera dute eta bestelako espazio berriak sortzen doazen heinean ere arnagune bihurtzen dituzte. Kezka dago espazio berri horiek sortzeko eta elikatzeak ez ote duen ekarriko orain arte arnagune izandako espazioen galera, eta hala bada, nola bermatu oreka.

Donostiako ulermen maila altuan ez gara egunerokotasuneko mehatxu horiek ikusteko eta ikusarazteko (salatzeko) oso kapazak, eta azken finean horiek dira egunero jasaten diren zapalkuntzak.

ERAKUNDE PUBLIKOEKIKO HARREMANA

Euskararen aldeko hiriko eragileek erakunde publikoekin duten harremana ona da orokorrean, gaur egun. Elkarlanean garatzen dira hainbat proiektu eta hauen zein talde eta batzorde desberdinen finantziazioari dagokionez, zuzeneko harremana eta solaskidetza daude.

Udala eta bertako euskara Zerbitzua dira, zentzu horretan, hirian garatzen diren euskararen aldeko ekimen askotan laguntzaile.

Hala ere, bestelakoa da sententzia euskara sustatzera bideratutako ekimenetatik haratago begiratzerakoan. Erakunde publikoetatik bultzatzen diren hainbat proiektu eta politiketan euskaraz eta euskaldunon eskubideez ahaztu izanaren sententzia ere badago. Ordenantzak eta Plan Orokorra bezalako neurri eta erabaki aurrerakoiak egin diren arren, bururaino eramateko borondate falta somatzen da gerora. Zentzu horretan, behar-beharrezkoa ikusten da Udala, Aldundia, Jaurlaritza eta beste instituzioei jarraipena egitea eta ustez euskararen alde daudenei ardurak gogoraraztea beharrezkoa denean.

Udalak paisaia linguistikoa zentzu zabalenean (komertzio berrietan, esaterako) zaintzen dela eta baimenekin batera euskaldunon eskubideak kontuan hartu eta betebeharrak betetzen direla ziurtatzeko ardura du. Gizartean eskubideen eztabaida saihestu egiten dute, benetan euskaldunon eskubideak bermatuta ez daudela jakin badakitelako. Honek urraketak salatzerako orduan bakardade sentimendua sortzen du eta herritarrek benetako erantzun kolektiboak nahi dituzte. Arauak bete ezean egin behar duenak jarraipen zorrotzagoa egitea eta norbere ardurak ondo betetzera konprometitzea eskatzen dute elkarlana benetakoa izan dadin.

Euskaraldia eta erakunde publikoekin elkarlanean garatzen diren lan-ildo guztiez gain, euskararen aldeko donostiarrek menpekotasunik gabe beren agenda eta erabakigune propioak eduki beharra ere ageri da.